

ARABAKO FORU ALDUNDIA DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak

8.011

972/2004 ERABAKIA, abenduaren 9ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Iruña Okako Ondasun Higiezin gaineko Zergaren peko lurzorua eta hiri eraikuntzen Balioen Txostenaren katastro-balioen jakinarazpena subjektu pasiboak bertaratuz egitea onartzen da.

Irailaren 28ko Diputatuen Kontseiluaren 733/2004 Erabakiaren bidez onartu zen Iruña Okako udalerrirako egindako Ondasun Higiezin gaineko Zergaren peko lurzorua eta hiri eraikuntzen balioen txostena.

Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen uztailearen 19ko 42/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritik, katastroko balioak banan-banan jakinarazi beharko zaizkio subjektu pasibo bakoitzari, eta horretarako subjektu pasiboa agertu beharko da adierazitako Bulego Publikoetan, edo berak baimendutako pertsona, esandako balioak indarrean jarri beharreko aurreko urtea amaitu baino lehen.

Foru Aldundiak Iruña Okako udalerrirako katastro-balio berriak jakinarazi dizkie subjektu pasiboari. Dena den, lege aldetik segurtasun handiago lortzearen, komenigarri ikusi da jakinarazpena subjektu pasiboak jasotzea Bulego Publikoetan, edo berak baimendutako pertsonak.

Hori dela-eta, Foru Aldundiak, lege-segurtasun hori areagotzearen, administrazio-bulegoetan agertu beharra ezarri du, Iruña Okako udalerrirako Balioen Txostenaren ondorioz sortutako katastro-balioei buruzko jakinarazpena jasotzeko.

Ikusi da Udal Zerga eta Katastroaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaia gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honakoa

ERABAKI DUT:

Lehenengo.- Irailaren 28ko 733/2004 Erabakiaren bitartez onartu zen Iruña Okako udalerrirako egindako Ondasun Higiezin Zergaren peko lurzorua eta hiri eraikuntzen balioen txostenaren ondorioz atera diren katastro-balioen jakinarazpena subjektu pasiboak jasota egitea, edo berak baimendutako pertsonak.

Horretarako, subjektu pasiboa edo baimendutako pertsona Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuaren bulegoan agertu beharko da (Samaniego kalea, 14 - 2. solairua. Vitoria-Gasteiz), eta hantxe jaso jakinarazpena.

Bigarren.- Aurreko artikuluan aipatzen den jakinarazpena jasotzeko epea hamar egunekoa izango da, iragarkia Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Hirugarren.- Jakinarazpena jasotzeko hamar eguneko epe horretan subjektu pasiboak edo horretarako baimendutako pertsonak dagokion jakinarazpena jaso ez badu, jakinarazpena egin dela ulertuko da ondorio guztietarako.

Laugarren.- Bigarren erabakian ezarritakoarekin bat etorritik, honi buruzko iragarkia Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

Bosgarren.- Erabaki hau Arabako Lurralde Historikoaren ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko abenduaren 9a.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Disposiciones y Resoluciones Administrativas

Acuerdos del Consejo de Diputados

8.011

ACUERDO 972/2004, del Consejo de Diputados de 9 de diciembre, que aprueba la notificación por personación de los Valores Catastrales de la Ponencia de Valores del suelo y construcciones urbanas sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles del término municipal de Iruña de Oca.

Mediante Acuerdo 733/2004, de 28 de setiembre, se aprobó la Ponencia de Valores del suelo y construcciones urbanas, sujetos al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, del término municipal de Iruña de Oca.

De conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 42/1989, de 19 de julio, reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, los valores catastrales deberán ser notificados individualmente a cada sujeto pasivo o mediante personación del mismo o persona autorizada al efecto, en las Oficinas Públicas que se determinen, antes de la finalización del año inmediatamente anterior a aquél en que deban surtir efecto dichos valores.

Por parte de la Diputación Foral se ha procedido a comunicar a los sujetos pasivos los nuevos valores catastrales del término municipal de Iruña de Oca. Ahora bien, en orden a conseguir una mayor seguridad jurídica, se considera conveniente proceder a la notificación mediante personación del sujeto pasivo o persona autorizada en las Oficinas Públicas.

Es por ello que la Diputación Foral ha decidido que, para aumentar la referida seguridad jurídica, la notificación de los valores catastrales resultantes de la Ponencia de Valores del término municipal de Iruña de Oca se practique mediante personación en las oficinas administrativas.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Tributos Locales y Catastro.

En su virtud, a propuesta del Diputado titular del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, previa deliberación del Consejo de Diputados, en sesión celebrada por el mismo, en el día de hoy,

ACUERDO:

Primero.- La notificación de los valores catastrales resultantes de la Ponencia de Valores del suelo y construcciones urbanas del término municipal de Iruña de Oca, aprobado mediante Acuerdo 733/2004, de 28 de setiembre, se practicará por personación del sujeto pasivo o persona autorizada para ello.

A tal efecto, el sujeto pasivo o la persona autorizada podrá personarse en las Oficinas del Servicio de Tributos Locales y Catastro, sita en la calle Samaniego número 14-2ª planta de Vitoria-Gasteiz, para retirar la oportuna notificación.

Segundo.- El plazo para la retirada de las notificaciones a que se refiere el apartado anterior será de diez días, a contar desde el siguiente al de la publicación del correspondiente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Tercero.- Transcurrido el citado plazo de diez días para la retirada de las notificaciones sin que el sujeto pasivo o la persona autorizada al efecto hubiera retirado la notificación correspondiente, se entenderá a todos los efectos como notificado.

Cuarto.- De conformidad con lo establecido en el apartado segundo, se procederá a publicar el correspondiente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

Quinto.- El presente Acuerdo se publicará en el BOLETÍN OFICIAL del Territorio Histórico de Álava.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de diciembre de 2004.- El Teniente Diputado General y Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Foru Aginduak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

7.932

574/2004 FORU AGINDUA, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuarena, abenduaren 1ekoa. Honen bidez onartu egiten da 008 eredu, uztailearen 12ko 16/2004 Foru Arauaren II. Tituluan aipatzen den zerga-erregimen berezia aukeratu dela edo erregimenari uko egin zaiola jakinarazteko eta irabazteko xederik gabeko erakundeek atxikipenak egin beharretik salbuetsita egoteko arrazoien egiaztatzea eskatzeko erabiliko dena.

Urriaren 19ko 60/2004 Foru Dekretuak 1. artikulua 1. paragrafoan xedatzen duenez, uztailearen 12ko 16/2004 Foru Arauak (irabazteko xederik gabeko erakundeek zerga-erregimenari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoa) II. Tituluan aipatzen den zerga-erregimen bereziaren menpe egon nahi duten erakundeek zerga-administrazioari jakinarazi beharko diote erregimen hori aukeratu dutela.

Bestalde, 1. artikuluan 2. paragrafoan arautzen denez, zerga-erregimen berezia aukeratu dela jakinarazi ondoren bukatzen den zerga-aldian aplikatuko da esandako zerga-erregimena, eta, erakundeak erregimen horri uko egiten ez badiu, hurrengo zerga-aldietan ere aplikatuko da.

Azkenik, urriaren 19ko 60/2004 Foru Dekretuak 4. artikuluan ezartzen duenez, irabazteko xederik gabeko erakundeek jasotako errentegatik atxikipenik edo konturako sarrerarik egin beharrik ez izateko arrazoiak egiaztatzeko, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailean eskumena duen organoak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Ziurtagiri horretan, gainera, erakundeari lehen esandako urriaren 12ko 16/2004 Foru Araua aplikatu behar zaiola adierazi beharko da.

Horregatik guztiagatik, eredu berri bat (008 eredu) onartu beharra dago zerga-administrazioari uztailearen 12ko 16/2004 Foru Arauaren II. Tituluan adierazitako zerga-erregimen berezia aukeratu dela edo erregimen horri uko egin zaiola jakinarazteko.

Era berean, inprimaki horren bitartez, irabazteko xederik gabeko erakundeek eskatu ahal izango diote zerga-administrazioari atxikipenik edo konturako sarrerarik egin beharrik ez izateko 16/2004 Foru Arauan adierazten diren arrazoiak dituztela egiaztatzeko.

Horren ondorioz, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo.- 008 eredu onartzea.

008 eredu onartzen da. Eredu hori erabiliko da uztailearen 12ko 16/2004 Foru Arauaren II. Tituluan aipatzen den zerga-erregimen berezia aukeratu dela edo erregimenari uko egin zaiola jakinarazteko eta irabazteko xederik gabeko erakundeek atxikipenak egin beharretik salbuetsita egoteko 16/2004 Foru Arauaren 14. artikuluan adierazten diren arrazoien egiaztatzea eskatzeko.

Bigarren.- 008 eredu nola erabili.

Uztailearen 12ko 16/2004 Foru Arauak Arauak (irabazteko xederik gabeko erakundeek zerga-erregimenari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzkoa) II. Tituluan adierazten den zerga-erregimen berezia aukeratu dela adierazteko erabiliko da 008 eredu.

Era berean, zerga-erregimen berezi horri uko egin zaiola ere adieraziko da 008 ereduarekin.

Azkenik, irabazteko xederik gabeko erakundeek atxikipenak egin beharretik salbuetsita egoteko uztailearen 12ko 16/2004 Foru Arauaren 14. artikuluan adierazitako arrazoien egiaztatzea eskatzeko ere erabiliko da 008 eredu.

Hirugarren.- 008 eredu aurkezteko lekua.

008 eredu Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko bulegoetan aurkeztuko da zuzenean edo posta ziurtatu bidez bidaliko da esandako bulegora.

Azken xedapen bakarra.

Foru Agindu hau, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko abenduaren 1a.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.

Órdenes Forales

DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

7.932

ORDEN FORAL 574/2004, del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, de 1 de diciembre, por la que se aprueba el modelo 008 de comunicación de la opción o de la renuncia al régimen fiscal especial del Título II de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio y de solicitud de certificado acreditativo de entidad sin fines lucrativos a efectos de la exclusión de la obligación de retener.

El artículo 1 apartado 1 del Decreto Foral 60/2004, de 19 de octubre, dispone que las entidades que deseen la aplicación del régimen fiscal especial previsto en el Título II de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo, deberán comunicar a la Administración Tributaria su opción por dicho régimen.

Por su parte, en el apartado 2 del citado artículo 1 se regula que el régimen fiscal especial se aplicará en el período impositivo que finalice con posterioridad a la fecha de presentación de la comunicación en que se contenga la opción, y a los sucesivos, en tanto que la entidad no renuncie al mismo.

Finalmente, el artículo 4 del mencionado Decreto Foral 60/2004, de 19 de octubre, establece que para acreditar la exclusión de la obligación de retener o ingresar a cuenta respecto de las rentas exentas percibidas por las entidades sin fines lucrativos, será necesario aportar certificado expedido por el órgano competente del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos indicando ser una entidad a la que es de aplicación la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, anteriormente mencionada.

Por todo ello, se hace necesario aprobar un nuevo modelo de impreso denominado 008 que sirva para comunicar a la Administración tributaria la opción o la renuncia al régimen fiscal especial previsto en el Título II de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio.

Asimismo, mediante este impreso, las entidades podrán solicitar a la Administración tributaria su acreditación como entidad sin fines lucrativos a efectos de la exclusión de la obligación de retener o ingresar a cuenta a que se refiere el artículo 14 de la Norma Foral 16/2004.

En su virtud y en ejercicio de las facultades que me competen,

DISPONGO:

Primero.- Aprobación del modelo 008.

Se aprueba el modelo 008 de comunicación de la opción o de la renuncia al régimen fiscal especial previsto en el Título II de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, y de solicitud de certificado de acreditación como entidad sin fines lucrativos a efectos de la exclusión de la obligación de retener o ingresar a cuenta a que se refiere el artículo 14 de la Norma Foral 16/2004.

Segundo.- Utilización del modelo 008.

El modelo 008 se utilizará por la entidad para comunicar a la Administración tributaria su opción por el régimen fiscal especial previsto en el Título II de la Norma Foral 16/2004, de 12 de julio, de régimen fiscal de las entidades sin fines lucrativos e incentivos fiscales al mecenazgo.

Asimismo, el modelo 008 se utilizará para comunicar la renuncia al mencionado régimen fiscal especial.

Por último, el modelo 008 también se utilizará por parte de las entidades para solicitar su acreditación como entidad sin fines lucrativos a efectos de la exclusión de la obligación de retener o ingresar a cuenta a que se refiere el artículo 14 de la Norma Foral 16/2004 de 12 de julio.

Tercero.- Lugar de presentación del modelo 008.

El modelo 008 se presentará bien directamente en las oficinas del Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, o bien a través de correo certificado dirigido a la mencionada Oficina.

Disposición final única.

La presente Orden Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Vitoria-Gasteiz, a 1 de diciembre de 2004.- El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.